

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenari jarraiki, 2017ko otsailaren 15eko Alkate erabakiz ESKORIATZAKO UDALEAN EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO IRIZPIDEAK onartu dira.

Irizpide horiek 2017ko apirilaren 1etik aurrera egindako eskaerei aplikatuko zaizkie.

ESKORIATZAKO UDALEAN EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO IRIZPIDEAK

A.- AURRETIKO OHARRAK

- Berriaz ohartarazten da Erregistro Zibilean (Bake Epaitegian) tramitatu behar dela ezkontza espedientea, eta ezingo dela ezkontzarik egin ez bada tramitazioa amaitu.
- Erregistro Zibilera (Bake Epaitegira) jotakoan espedientea tramitatzera, adierazi beharko da zeremonia Alkateak edo bera ordezkatzeko duen zinegotziak egitea nahi dugula.
- Beharrezkoa da Bake Epaitegiak ezkontza aurretiko espedientearen amaieraren berri emateko bidalitako ofizioa izatea Udalak.

B.- ESKAERAK.

- **Nortzuk egin dezakete:** Alkatetzan ezkontzea nahi eta Erregistro Zibilean espedientea tramitatzera horrela adierazi duten guztiek.

- Eskaera egiteko lekua:

Udal Erregistro Orokorrean, jendearentzako ordutegian.

Telematikoki.

Posta bidez.

- Eskaera egiteko epea:

Gutxienez ezkontza eguna baino 2 hilabete lehenago eta gehienez ere 6 hilabete lehenago.

- Aurkeztu beharreko dokumentuak:

Eskaera.

Ezkontideen NANaren fotokopia.

Bi lekukoren NANaren fotokopia eta egungo helbidea.

Ezkontza ospatzeko aukeratutako zinegotziaren izen abizenak adierazi beharko dira eskaeran, aukeratutakoa Alkatea ez denean.



- Egun edo leku bererako eskaera bat baino gehiago izanez gero, lehentasuna izango du eskaera lehenago egin duen bikoteak.

C.- ZEREMONIA

- **BAIMENA EMATEN DUEN ORGANOA:** Alkateek ezkontza zibilak zuzendu ahal izateko Kode Zibilaren aldaketa egiteko abenduaren 23ko 35/1994 legearen 51.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, baimena ematen duen erakundea Eskoriatzako Udaleko Alkatea da. Hala ere, ahalmen hori edozein korporaziokiderengan eskuorde dezake, alde interesdunak horrela eskatzen badu edo legedian eskuordetzeko aurreikusten den edozein kausa ematen bada.

- EZKONTZA ZEREMONIA OSPATZEKO AURREIKUSITAKO LOKALAK

Zeremonia ospatzeko aurreikusitako lekuak udaletxea eta Ibarraundi museoa dira, betiere, eskatutako egun eta orduan erabiltzeko libre baldin badaude.

Ibarraundi museoko aretoa museoan bertan erreserbatu beharko da.

Erreserba Ibarraundi museoan bertan egitearen kaltetan gabe, egindako aukera eskaera idazkian adierazi beharko da.

- ZEREMONIA EGITEKO ORDUTEGIA ETA EGUNAK

Larunbat lanegunetan:

Udaletxea: 10:00etatik 13:00etara.

Ibarraundi museoa: 10:00etatik 12:00etara.

Egun hauetan ez da zeremoniarik egingo:

- Jaiegunetan.

- Abuztuan.

- Zubi-egunetan.

- Aste Santuan.

-Herriko jaietan (ekainak 28, 29 eta 30 eta uztailak 1).

Ezkontza bat baino gehiago izanez gero egun berean, gutxienez ordu erdiko tartea utziko da batetik bestera.



D.- ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

Udal lokalen erabiltzaileek lokal horiek eta bertako altzariak zaindu beharko dituzte eta gizalegez jokatu.

Erabat debekatuta dago arroza, loreak edo antzekoak botatzea eraikinen barrualdean. Eraikinaren kanpoaldean botaz gero, ezkontideek neurriak hartu beharko dituzte bertatik alde egin bezain laster dena garbi geldi dadin. Horrela egin ezean, Udalak garbiketaren kostea erreklamatu die ezkontideei.

Lokaletan eta bertako tresnetan sortutako kalteen erantzukizuna ezkontideena izango da, eta Udalak horiek konpontzeko eskatu dezake.

Ezkontideek 100 euroko fidantza jarri beharko dute udal instalazioak egoki erabiliko diren berme bezala. Fidantza gutxienez zeremonia egunaren baino 10 egun lehenago jarri beharko da, eta udal ondasunen egoera aztertutakoan eta interesdunek aurrez horrela eskatutakoan itzuliko da. Udal ondasunetan kalterik izanez gero, garbiketa behar bezala egin ez edo udal jabarian sortutako beste edozein kalte izan, fidantza bahitzeko espedientea hasiko da, eta interesdunei entzunaldia eskainiko zaie.

Udal lokalak erabiltzeak indarrean dauden udal ordenantzetan ezarritako tasa ordaintzea ekarriko du.

Eskoriatza, 2017ko otsailaren 22a. ALKATEA



De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, por Resolución de Alcaldía de fecha 15 de febrero de 2017 han sido aprobados los siguientes **CRITERIOS PARA CELEBRAR BODAS CIVILES** en el **AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**.

Dichos criterios se aplicarán a las solicitudes que se cursen a partir del 1 de abril de 2017.

CRITERIOS PARA LA CELEBRACION DE BODAS EN EL AYUNTAMIENTO

A.- OBSERVACIONES PREVIAS

- Expresamente se advierte que el expediente de matrimonio debe tramitarse en el Registro Civil (Juzgado de Paz) y que no podrá contraerse matrimonio si no se ha finalizado su tramitación.
- Cuando se vaya al Registro Civil (Juzgado de Paz) a tramitar el expediente habrá de indicarse la intención de que la ceremonia sea celebrada por el/la Alcalde/sa o Concejal /a Delegado/a.
- Es necesario que obre en poder del Ayuntamiento OFICIO del Juzgado de Paz informando de que ha concluido el expediente previo de celebración del Matrimonio.

B.- SOLICITUDES

- **Quienes pueden solicitar:** Todas aquellas personas que quieran celebrar su matrimonio en la Alcaldía y así lo han indicado en la tramitación del expediente en el Registro Civil.

- **Lugar para cursar la solicitud:**

En el Registro General del Ayuntamiento, horario de atención al público

Telemáticamente

Por correo postal

- **Plazo para cursar la solicitud:**

Con una antelación mínima de 2 meses con respecto a la fecha de celebración del matrimonio y máxima de 6 meses.

- **Documentación a presentar:**

Instancia de solicitud

Fotocopia DNI contrayentes

Fotocopia DNI de los dos testigos y domicilio actual.

En la solicitud se detallará el nombre y apellidos del Concejal de la Corporación elegido para la autorización del matrimonio cuando sea distinto del/a Alcalde/sa.



- En caso de haber varias solicitudes de celebración para un mismo día o lugar, tendrá preferencia la pareja que haya presentado antes el escrito de solicitud.

C.- CEREMONIA

- **ORGANO AUTORIZANTE:** De conformidad con lo establecido en el artículo 51.1 de la Ley 35/1994, de 23 de diciembre, de modificación del Código Civil en materia de autorización del matrimonio civil por los Alcaldes, el órgano autorizante es el/la Alcalde/sa del Ayuntamiento de Eskoriatza, no obstante podrá delegar esta facultad en cualquier miembro de la Corporación, a petición de parte interesada, o por cualquiera de las causas de delegación previstas en la legislación.

- LOCALES PREVISTOS PARA LA CELEBRACION DE LA CEREMONIA DE MATRIMONIO.

Los lugares previstos para la celebración de la ceremonia serán el edificio de la Casa Consistorial y el Museo Ibarraundi, siempre que estén disponibles en la fecha y hora solicitados.

La reserva de la estancia del Museo Ibarraundi deberá de hacerse directamente en el propio museo.

Sin perjuicio de que la reserva del Museo Ibarraundi se haga directamente en el propio museo, la elección deberá ser indicada en el escrito de solicitud.

- HORARIOS Y FECHA DE CELEBRACION DE LA CEREMONIA.

Los sábados laborables:

Casa Consistorial: de 10:00 horas a 13:00 horas

Museo Ibarraundi: de 10:00 horas a 12:00 horas

No se celebrarán ceremonias:

- Los días festivos.

- Mes de agosto.

- Puentes.

- Semana Santa.

-Fiestas Patronales (28,29 y 30 de junio y 1 de julio)

- En el caso de celebrarse más de un matrimonio en un mismo día, se dejará como mínimo un intervalo de media hora entre los distintos actos.



D.- OBLIGACIONES DE LOS USUARIOS

Los usuarios de los locales municipales deberán cuidar de los mismos, del mobiliario existente y comportarse con el debido civismo.

Queda terminantemente prohibido echar arroz, flores y similares dentro de los edificios. Si se echa en el exterior del edificio la pareja contrayente deberá adoptar las medidas precisas para que se limpie tan pronto como se abandone el lugar. En caso contrario, el Ayuntamiento reclamará el coste de dicha limpieza a la pareja contrayente.

Los daños causados en los locales y enseres en ellos existentes serán responsabilidad de los contrayentes y el Ayuntamiento podrá exigir su reparación.

Los contrayentes deberán entregar una fianza por importe de 100 euros, en garantía del correcto uso de las instalaciones municipales. La fianza se prestará con una antelación mínima de 10 días a la celebración de la ceremonia y se procederá a su devolución, previa solicitud de los interesados, una vez comprobado el estado de los bienes municipales. En caso de daños a los bienes municipales, mal estado de limpieza o cualquier otro perjuicio ocasionado al dominio municipal, se iniciará el correspondiente expediente para la incautación de la fianza, con audiencia a los interesados.

El uso de los locales municipales conllevará el pago de la tasa prevista en la vigente Ordenanza Fiscal.

Eskoriatza, 22 de febrero de 2017. EL ALCALDE.